

Egilea: Araitz Martinez Ayerbe

HISTORIAKO PROTAGONISTAK

Historiak ba al dauka protagonistarik? Zeintzuk dira protagonistak? Protagonista guztiak gizonezkoak dira? Ba al dago emakume protagonistarik? Nola irudikatu dira emakumeak historian? Historia protagonistaz beteta dago, baina zergatik dira denak gizonezkoak? Amaia Nausiak “esan dute emakumeok ez garela izan historiaren protagonistak” esan zuen eta hori ez da horrela.

Protagonista literatura, antzerki, musikazko narrazio eta film bateko pertsonaia nagusia da. Normalean protagonistak pertsona gehiengoak ezagutzen dituzte. Historiak hainbat protagonista ditu: Adolf Hitler, Francisco Franco, Kristobal Kolon, Juan Sebastian Elkano, Albert Einstein, Isaac Newton, Napoleon Bonaparte, Charles Darwin, Julio Cesar, Pitagoras, ... Horiek guztiak orain dela urteetakoak dira. Orain ere protagonista gehiago badaude, adibidez, Donald Trump, Joe Biden, Lionel Messi, Johan Rockstrom, Elon Musk, ...

Aipatu ditudan protagonista guztiak gizonezkoak dira baina hainbat emakume protagonistak izan ziren ere. Historiako protagonistak izan ziren emakume batzuk hauek dira: Marie Curie, Ada Lovelace, Virginia Woolf, Clara Campoamor, Kleopatra, Hipatia, Amelia Earhart, Frida Kahlo, Rosalind Franklin, Ana Frank, Carrie Fisher, Emmy Noether... Gaur egun ere emakume protagonista gehiago daude: Malala Yousafzai, Raquel Vasquez, Nadia Fatmi, Rebecca T, Rigoberta Menchú, Ursula von der Leyen, Megan Rapinoe, Toti Martinez, ...

Orain aipatu ditudan emakume guztien izenetatik batzuk bakarrik dira ezagunak, baina aipatu ditudan gizon guztietatik gehiengoak ezagunak dira. Eta hori zergatik? Betidanik Historiak gizonezkoak hartu ditu protagonista nagusiak bezala, edozein lekuetan Historiari buruz arakatzuz gero, gizonezkoak bakarrik agertzen dira. Emakumeak, berriz, bigarren maila batean irudikatu izan dira beti. Ama, emazte, zaintzaile eta gizarteko kide ahul gisa irudikatu dituzte. Historia gizonezkoek idatzita dagoenez, emakumeei garrantzia gutxiago eman die baina hori ez da horrela.

Emakumeak, ama, emazte, zaintzaile eta gizarteko kide bezala lan handia egiteaz gain, garapen politiko, zientifiko, sozial eta ekonomikoan lan garrantzitsua egin dute.

Laburbilduz, emakumeak beti mespretxatuak, baztertuak, ezkutatuak izan dira eta hori aldatzeko ordua da. Gizonezkoek mundua politikoki, zientifikoki, ekonomikoki eta sozialki aldatu duten bezala emakumeak ere egin dute, beraz, biak berdin irudikatu behar dira Historian eta beste edozein esparrutan.